

Osa: «Joseba Arregi euskalgintzak daukan oztopo nagusienetakoa da»

AEKren Bizkaiko arduradunak sailburuaren «borondate falta» salatu du

AEKren Hegoaldeko lau herrialdeetako arduradunek gogor erantzun zieten atzo Joseba Arregik herenegun egin adierazpenei. Erramun Osaren ustez, Arregi «euskalgintzak daukan oztopo nagusienetakoa da, baina ez bakarra». Hala ere, «oraindik hitz egiteko borondatea» daukatela berretsi zuten AEK-ko kideek.

A. ZUBEROGOITIA / BILBO

Joseba Arregi Jaurlaritzako Kultura sailburuak AEK-k 1984ean homologazio prozesuari uko egitean «trena galdu» zuela adierazi zuen herenegun. Euskaltegi libreak dirulaguntza barik uzteko erabakia Legebiltzarrean azaltzean egin zituen adierazpenok Arregik.

Adierazpen hauei erantzunez, Erramun Osa AEKren Bizkaiko arduradunak «Arregik euskalgintzaren eta euskal kulturaren trena aspaldi» galdu zuela iritzia atzo Bilbon eskainitako prentsaurrekoan. Osaren aburuz, «Arregik ez du erakutsi eta sekula ez du izan ezelako borondaterik euskaltegi libreen arazoa konpontzeko. Bi hileotan egin duen bakarra denbora irabazi eta arazoa luzatzea izan da».

Bizkaiko arduradunaren esanetan, «18.000 pertsona (iaz ikastaroetan matrikulatu zirenak) euskara ikasteko aukera barik utziko ditu. Hau are harrigarriagoa da AEKrentzako diru partida 90-100 milioi pezetakoa baino ez dela kontuan hartuz gero. Kopuru hau oso urruti gertzen da HABEk erabiltzen duen 3.500 milioi pezetako (152 milioi libera) dirutzatik».

HPIN ETA KULTURA SAILA Euskaltegi libreak laguntza barik gelditzea eragozteko, alderdi politiko, sindikatu eta euskalgintzan diharduen jendearekin ere bildu da AEK: «EA, EUE, EAJ, HB, sindikatuak, Hezkuntza eta Kultura sailak, PSE-EE, Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (HPIN)... Guztiekin hitz egin dugu, baina saialdi eta ahalegin orotan Kultura Sailaren oztopo nagusia aurkitu dugu».

Era berean, EAJ salatu zuen Erramun Osak, «neurri hau eragozteko bere esku zegoen guztia egin ez duelako». Horretaz gain, HPIN «euskaltegi libreei laguntza kentzearen aurka» egonagatik, Osaren ustez Mari Karmen Garmendia buru duen erakundeari «Kultura Sailak ez dio ja-



Hitz gogorak esan zituzten AEK-koek Arregiren adierazpenen inguruan.

SIMAL

ramonik egin».

HABE ere hizpide izan zuen AEK-ko kideak. Bere aburuz, «gaitzesgarria da erakunde honen jokabidea: uztailaren 22an,

esaterako, 18.000 pertsona euskara ikasteko laguntza barik utzi eta 13 egun geroago, adostasunerako deia egin zuen. Nork ulertzen du hori?». Gauzak horrela,

«ikusitakoak ikusita» Osari «zaila» zaio Arregi elkarrizketei berrekiteko prest dagoela sinistea. Hala ere, AEK-k «hitz egiteko prest» diruela berretsi zuen.

1984eko mugarriaz geroztikoak

A.Z. / BILBO

1984a funtsezko urtea da euskalgintzaren historian. Ordura arte soilik AEK ari zen helduen euskalduntze eta alfabetatzearen esparruan lanean. Haatik, urte horretan euskalgintzaren ingurukoak arautu zituen legedia eratu zen. Juan Mari Mendizabal AEKren Gipuzkoako arduradun nagusiaren arabera, «legedi hori egin zen unean AEK baino ez zen ari lanean helduen euskalduntzean, eta hala ere ez gintuzten ezertarako kontuan hartu. Ha-

rreman bakarria izan genuen: orduan Eusko Jaurlaritzan zegoen Olaterekin, hain zuzen ere. Guk gure proposamena eta borondatea agertu genizkion, baina ez genuen erantzunik jaso».

Legedi berria homologazioan oinarritu zen; Mendizabalen esanetan, «kontzeptu hori unibertsitate tituluaren eta EGAn oinarritzen da. Gure ustez ez dio erantzunik ematen ez helduen euskalduntzeari ezta maisuen prestaketari ere. Horregatik, bere garaian uko egin genion».

Orditik hona eginiko bidearen

emaitzei «oso txar» iritzia zien Gipuzkoako arduradunak: «Adibidez, 1987-91 epean 7.000 ikasle galdu dira helduen alfabetatzean». Behin hona iritsita, orduan sortutako HABE kritikatu zuen Mendizabalek: «Ikasketen prezioa itzelean igo nahi du (200 pezeta/zortzi libera orduko), *numerus clausus* ezarri... Era berean, zentroek laguntza jasotzeko gutxienez 48 ikasle eduki behar izana ere traba handia da herri txikientzat». Mendizabalen ustez, «politika guzti honen xedea AEK itotzea da».

Urbina-Maltzaga aztertuko duten herritarrek «neutroak» izango dira

GASTEIZ

Urbina-Maltzaga autobidea egin behar den ala ez eztabaidatuko duen herritarren taldearen jarrera «neutrala» izango dela adierazi du talde hori osatuko duen herritarren aukeraketa egingo duen Gizarteaz elkartek. Herritar hauek arduratuko dira autobidea egin behar dela ala ez aztertzeaz, eta baita egin beharra izanez gero izango dituen ezau-

garriak zehazteaz ere.

Jaurlaritza nahiz foru diputazioak osatzen duten Azpiegitura Kontsultazioak erabaki zuen Gizarteaz taldea eratzea, eta proiektuaren xehetasunak Luxio Ugarte eta Hans Harms zuzendariak azaldu zituzten Legebiltzarrean.

25 lagunek osatutako hamalau talde eratzea aurrirakusten du proiektuak, eta hamar hilabete luzez Urbina-Maltzaga izango dute eztabaidagai. Orain arte

ezagunak diren aukerak aztertu egingo dituzte, baina guztiak baztertu eta berri bat egokiagoa dela uste badute hala erabakitzeko ahalmena izango dute.

Herritarren taldea osatzeko Gipuzkoako Deba arroa nahiz Donostia inguruetako herrietako bizilagunak hautatuko dira. Bizkaian Ermua eta Mallabia artean dauden herrietako biztanleak eta Araban aldiz, Urbinatik Gasteizera bitartekoak.

Gaztetxeen aldeko giza katea gaur Azkoititik Azpeitira

DONOSTIA

Azkoitiko enparantza nagusitik abiatuta, giza kate baketsua egingo dute gaur arratsaldeko 17.00etan Azkoitiko eta Azpeitiko gazteek, bi herri hauetako udalek bi herri-tako gaztetxeak itxi izana salatu eta ateak berriro zabaltzea exigitzeko. Azkoititik abiatuta, Azpeitiraino oinez joango dira giza kateko partaideak.

Hirurogeitik gora lagun bildu ziren joan den ostegun gauean Azpeitian, bi gaztetxeen itxtearen aurreko erreakzioa erabakitzeko egindako bileran, eta agiri bat kaleratu eta gaurko giza katea antolatzea erabaki zuten, bestek beste. Agiri horretan, itxitako gaztetxeek beharrezko baldintzak betetzen ez baldin badituzte, lokal berriak eskaintzeko exigitzen diete Azkoitiko eta Azpeitiko gazte asanbladek herri hauetako udalei, eta, bitartean, itxitako lokalak zabaltzeko berehala.

Gaurko giza kateaz gain, erakundeek gaztetxeen aurka daramaten politika salatuzko manifestaldi nazionala antolatzea ere erabaki zuten Azkoitiko eta Azpeitiko gazteek osteguneko bileran. Azpeitian egingo da manifestaldi handi hori, urriaren 30ean.

Udalek joan den asteazkenean, aurreko abisurik eman gabe, itxitako Azkoiti eta Azpeitiko gaztetxeen kasua ezezik, lehenagotik itxita edota itxeko mehatxuarekin dauden Euskal Herriko beste hainbat eta hainbat gaztetxeen egoera ere salatzea izango da manifestaldi nazional horren helburu nasusia, Azkoitiko eta Azpeitiko gazte asanbladek EGUNKARIARI aditzera eman diotenez.

AOSGUI

Gipuzkoako Ostomizatuak elkarteak deia luzatzen die bazkide eta kide guztiei, Urriak 16an burutuko den hitzaldirako. Hitzaldia, Eibarko ONDO NAHI elkartearekin izango da.

AOSGUI: Sta. Katalina, 3
Tf.: 43 02 23
DONOSTIA